

Euskal Herria: mende berriari begira

por **Xabier Etxaniz**

Azken hamar urte hauek euskal haur eta gazte literaturako urterik emankorrenak eta aberatsenak izan dira, bai argitaratu diren liburuen kopuruari, bai kaleratutako lanen kalitateari dagokionez.

Baina eskaera handia zegoen garai batetik, argitaletxeek eskaera horri nolabait erantzun beharrean aurkitzen ziren garaitik, haur eta gazte literaturak literatura sisteman bere lekua bilatzen zuen garaitik gogoeta egiteko garaira iritsi gara. Une honetan bidegurutze batean aurkitzen gara, demografi jaitsierak eta azken urteotako argitalpen ugariak argitaletxeak behartuko dituzte, behartu aukeraketa handiagoa egitera eta behartu merkatuan egon daitezkeen eskaerak eta hutsuneak betetzera. Azken urte honetan zentzu honetan interpreta daitezkeen mugimendu batzuk egon dira.

Dona, dona

Elkarlanean argitaletxe donostiarrek zotz egiteko hitz hauek erabili ditu bere sail berri bat izendatzeko, guraso, hezitzaile eta haurrentzat ere zuzenduriko bilduma honetan lehen liburua Txilikuk idatzitako eta Elena Odriozolak ederki ilustraturiko *Axa, Mixa, Zilarra* (Elkarlanean, 2000) dugu. Irakasteko baina era berean entretenitzeko eta jolasteko liburua da; folkloretik jasotako testuekin, igarkizunekin, kantekin... osaturiko sorpresa liburua da aurtengo ustegabe ederretako bat. Juan Kruz

Igerabideren *Martin Parrat* (Susaeta, 2000) liburua bezala, aurrekoa bezain ezaguna ez izan arren, hau ere liburu aparta dugu, herri kantekin jolasteko, poemak egiteko liburu gisa aurkitzen digu Igerabidek azken hau. Testu ezagunetatik abiatuta ustegabea, jolasa, irribarre sentimendua jasotzen ditugu *Martin Parrat* honetan eginiko aldaketak direla eta.

Ildo honetan bertan, euskal herri literatura jakinarazteko asmoz daukagu X. Etxanizen

Geure ipuinak (Pamiela, 2000), euskal ipuin biltzaile garrantzitsuenen ipuinen antologia honetan irakurleak aldaera ezberdinekin gozatuko du, erdal kontu ezagunen euskal bertsioekin harritu egingo da, eta ipuinen aberastasunarekin disfrutatu. Horrela, *Aladino, Ciclope* edo *Cenicienta* bezalako pertsonaia ezagunen euskal bertsioak irakurriko ditugu euskalki ezberdinen kutsua gorde den euskara batuan.

Eta, aurreko horretan bezala,


herri ipuinek osatzen dute Urrezko Giltza izeneko bilduma berria, Joxe Arratibelen ipuinen adaptaketa egin du Patxi Zubizarretak, Jon Zabaletak eta Alvaro Matxinbarrenak ederki ilustratu eta maketatu dituzte liburu hauetan. Azal gogorra eta koloreetako ilustrazioak berriro hasi dira agertzen euskal argitaletxeen produkzioan, eta Ereingo sail hau horren adibide garbia dugu.

Baina azken urteotan horrelako liburu landuak euskaraz argitaratu dituen etxea Galiziako Kalandraka dugu. Haur txikienezako hainbat eta hainbat liburu plazaratu dituzte Koldo Izagurrek euskaratuak, eta batzuk aipatzearen komenta dezakegu Grimm anaien *Zazpi antxumeak* (Kalandraka, 2000) ipuinaren bertsioa, Xosé Ballesterosen testua eta Sofia F. Rodriguez eta Ana Miguezek era berezian ilustratua; edo beste modu bateko ipuinak aipatzearen, Christiane Pieper-en *Munduan barrera noraezean, Hartza eta Kattalin* (Kalandraka, 2000) edo Eva Muggenthaler-en *Raul artzaina* (Kalandraka, 2000) ipuin poetiko eta sugerikorra.

Honi guztiari gehitu beharko zaio urteetan zehar isilik Tartalo argitaletxeak aurrera daraman lan handia, haur txikienezako jolasteko, lehen irakurketetara eta liburuetara hurbiltzeko produktuak argitaratuz. Edo SM etxeak argitaratu duen *Musuka* (SM, 2001) liburu berezia, Patxi Zubizarretaren testu labur eta Jokin Mitxelenaren irudien bidez musu ezberdinen antologia eskaintzen digun liburu aparta.



JOKIN MITXELENA, MUSUKA, SM, 2001.



Gloria Fuertes

Poeta honi eskainia izan da iazko liburu interesgarrienetarikoa bat, *Gloria* (Alberdania, 2000) Jose Ignazio Ansorenak, «Mirri»k, idatzitako ipuina. Narratibaren eta antzerkiaren arteko sor lan honetan Ansorenak animismoa eta poesia, norberaren garapena eta giza arazoak ukitzen ditu idazlan entretenigarri batean, eta ohi bezala Antton Olariagaren ilustrazio egokiez lagundurik.

Baina aipaturiko *Gloria* horrez gain egon dira aipatzeko moduko liburuak urte honetan, *Sorgina eta maisua* (Elkarlanean, 2000) Mariasun Landak umorez idatzirik ipuin transtestuala esaterako, edo Patxi Zubizarretak idatzi eta Elena Odriozolak ilustraturiko *Magalik badaki* (Anaya, 2000) ipuin inizatiko, edo Jonasen hirugarren liburua (*Jonasen iratzargailua*, Aizkorri, 2001) Igerabide eta Valverderen artean eginga eta tronurik gabeko printzearena ukitzen duen istorioa, edo maitasunari buruzko *Ttolo maitea* (Erein, 2001) J.K. Igerabidek ere

idatzia eta Belen Lucasen irudiak jasotzen dituena; *Amona bizikletan* (Elkarlanean, 2000) J. Ormazabalen ipuina, bertan amona bat eta haren senar hildakoaren harremana kontatzen zaigu ilobaren ikuspuntutik, edo Meri Torras idazle katalanaren *Nire arreba Aixa* (Elkarlanean 2001), hainbat sari irabazitako idazlana eta Patxi Zubizarretak euskaratu duena (gainera, ipuin honek badu duela bi urte Zubizarretak berak idatzitako *Usoa, hegan etorritako neskatoa* haren antzik; eta aipagarria da era berean, Usoaren ipuin horretan oinarriturik pelikula labur bat egin dela aurtan eta *Egunkarian* astero astero argitaratzen ari direla Usoaren eta haren lagun istorioak).

Amona, zure Iholdi (Erein, 2000) Mariasun Landak idatzi eta Asun Balzolak ilustraturiko ipuina izan da aurtengo beste lan aipagarri bat. M. Landaren protagonista gazteak (haurtaroa uzten eta gaztaroan sarturik agertzen zaigu Iholdi oraingoan) egunkari bat erabiliko du daukan arazoa bere amonari kontatzeko. Eta narrazio labur ho-

rrek haur eta gazteen barne mundura hurbiltzeaz gain, haien psikologiara hurbiltzeaz gain, zeharka bada ere Euskal Herriko indarkeriaren gatazkara hurbiltzen gaitu, edo horri buruzko gogoetarako leihoa ireki.

Eta Xola zer?

Aurtan bi bildumak izan dute eragin berezia geure haur eta gazte literaturan. Alde batetik *Gara* egunkariak bultzaturik Baignorri argitaletxeak plazaratu zuen ipuin bilduma; hamar liburu artean euskal idazle ezagunak aurkitzen ditugu; hona hemen obra horietako batzuk: *Xola ehizan* (Atxaga-Valverdek), *Oihaneko mutikoa* (Txiliku-E. Odriozola), *Urregorritzko kutxa* (A. Egaña-E. Eibar), *Izar bat erori da zerutik lurrera* (Y. Arrieta-A. Dueso), *Mari* (A. Egaña-K. Fernandez), eta horien ondoan dauzkagu, besteak beste, J. Iturralde, Patxi Zubizarreta edo Alex Turrillasen lanak euskara eta ingeleraz edizio elebidunean argitaratuak.

Bilduma horrek bezala, beste

berri bat ezagutu dugu argitaletxe elkartuek bultzaturik eta gizartean dauden hainbat arazo eta egoera modu literario batean kontatzeko eginda. Lau liburu argitaratu dira eta horietatik hiru euskal idazleek eginak (ilustratzaile guztiak ere hemengoak dira); horrela, Silvia Ugidosen aurkezten duen aita etxeandreaaren alboan, futbola gustatzen ez zaionarena kontatzen digu Andoni Egañak, lodia den umearen istoria (Seve Callejaren eskutik), edo egileak berak bezala «akerrak adarrak okerrak ditu» ahoskatzeko arazoak dituen mutilaren istorioa Anjel Lertxundik idatzia *Nik erremerre hitz egiten dut* (A. Lertxundi-J. Mitxelena). Liburuok Elkarlanean argitaletxeak plazaratu ditu euskaraz eta balio didaktikoa izanik ere literarioa ongi zaintzen duten liburuak dira Eta Zer? sailean jasotzen diren hauek.

Asian barrena

10-14 urte bitartekoentzat egin izan dira libururik gehienak azken urte hauetan, itzulpen eta

sor lan gehienak esparru horretakoak izan dira, beraz, ez gaitu harritu behar bertan sail berririk sortu ez izanak. Baina, jakina, sail berririk ez egon arren, egon egon dira sor eta itzulpenak; horietako bat dugu Amaia Elosegik idatzitako *Asiakleta* (Erein, 2000), egunkari moduan egileak beste neska batekin Txinaraino txirrindulaz eginiko bidaia. Hizkera sinplea, testu labur eta zehatzak erabiliz idazleak plazaratuko dizkigu beren sentimenduak, jakinarazi beren gertaerak eta une entretenigarri bezain atsegina eskaini Asian barrena eginiko bidaia honen bidez.

Joxemari Iturralde, bestalde, Riskyren bi liburu berri argitaratu ditu, *Risky eta bere lagunak* (2000) eta *Riskyren bihurriketariak* (2001), biak Elkarlanean argitaletxeak plazaratuak eta *E. Egunkariak* duen «Xingola» gehigarrian argitaraturiko kapituluetan oinarrituak. Era berean, bada azken urte honetan beste bi abentura liburu argitaratu dituen beste idazle bat: Karlos Santisteban. Berak idatziak dira *Erotrena* (Aizkorri, 2000) eta *Zirku izugarria* (Ibaizabal, 2001).

Baina ugari dira irakurle hauentzat argitaratu diren eta aparteko komentario mereziko zuten obrak; umore klabean idatzirik *Amonak ihes egin du* (Elkarlanean, 2001) Jeremy Strongen liburua, esaterako, *Gutun lapurrak* (Desclée de Brouwer, 2000) Seve Callejarena, edo egile beraren *Deabrua gorputzean* (Elkarlanean, 2000), Josu Azala protagonista duen liburu berria, *Josu Azalaren abenturak* (Ibaizabal, 2000) Iñaki Zubeldiak idatzia, edo *Kilikolore* (Elkarlanean, 2000) eta *Matte-Matte* (Gero, 2000) Antton Kazabonen poema liburuak. Eta nahiko poetikoa da, baita ere Begoña Bilbaoren *Ibaia maitasunaren oztopo* (Erein, 2001), Lizardi saria irabazi zuen obra horrek azterketa zehatzagoa mereziko zuen,

baita *Zookalako erregeak* (Elkarlanean, 2000) Inongo-Vi-Makomèk idatzitako liburua. Baina azken urte honetan ustegabe atseginetako bat, zalantzarik gabe, bazterreko generoa erabiltzen duen Mikel Valverderen *Gangsterren ihesi* (SM, 2001) komiki liburua dugu. Irakurle hasiberrientzat egindako liburu hau umorez kontaturik dago eta hurrei bezala, helduei ere ezipaineratuko die irribarrea.

Era berean, aurten bertan iritsi zaigu orain arte egin den Antoine de Saint-Exupéry idazlearen *Printze txikia* (Elkarlanean-Salamandra, 2001) liburuen argitalpenik zainduena. Jatorrizko akuarelak erreproduzitzen, Patxi Zubizarretak eginiko itzulpen zuzenaz, klasiko horren edizio txukun baten aurrean gaude, azal gogorrez nahiz bigunez eginiko edizio zainduan.

Harry Potter euskaraz mintzo


Azken argitaletxe hauek izan dira Harry Potter mutiko eza-gunaren abenturak euskaraz argitaratu dituztenak. Iñaki Mendigurenen itzulpen egokiaren (IBBYren ohorezko zerrendarako hautatua izan da itzulpena), euskaraz argitaratu da sail horretako lehen liburuak. Atzerapen hori izanda ere, liburuak arrakasta handia izan du gure artean hilabete eskasean agortu baitzen lehen edizioa. Geure literatura normalizatzen ari den beste seinale bat, eta nazioarte mailan gertatzen diren fenomenoek (literarioek eta ez hain literarioek) gurean eragina duten seinale. Argitaletxeen aldetik sailaren bigarren liburuak iragarri da Iñaki Mendigurenek berak itzulua.

Baina literatura modernoa euskaratzen den bezala, badira bes-

telako proiektuak. Horren adibidea dugu Erein argitaletxeak martxan jarri duen Gure Klasiakoak saila, literatura unibertsaleko liburuak gazteei zuzentzeko asmoz eginiko saila. Horrela, berriki argitaratu duten *Ulises* (Erein, 2000) liburuaz J.K. Igerabidek eginiko bertsoaren ondoren iragarri dira Ovidioren *Metarmofosiak*, *Testamendu Zaharreko istorioak* eta *Mila eta bat gau* liburuaren bertsoak. Zalantzarik gabe, hauxe izan da gazte literatura zabaltzeko eta aberasteko azken urteotan eginiko apostu interesgarrienetariko bat. Baina ez da hori izan argitaletxe horrek eginiko apostu bakarra, tesi liburuaren planteamenduarekin gazte nobelak argitaratu baititu; azken urte honetan bi: *Utzi droga hori, kopon!* (Erein, 2001) Dagmar Kekulék idatzia eta Ann Ladigesen *Alde hemendik, makal hori!* (Erein,



MIKEL VALVERDE, NIRI EZ ZAIT FUTBOLA, EDITORES ASOCIADOS/ELKARLANEAN, 2000.



MANU ORTEGA, IBAI MAITASUNAREN OZTOPO, EREIN, 2000.



ASUN BALZOLA, SORGINA ETA MAISUA, ANAYA, 2001.

2000) droga eta alkoholaren arazoaren inguruan eraikitako nobelak.

Beste idazle batzuek aurreko urteetako ildoari jarraituz argitaratu ditzute nobela berriak; Aitor Aranak idatzitako *Amodioaren gazi-gozoek* (Ibaizabal, 2001) nobela kostunbrista, esaterako. Bertan XX. mende hasieran baserri batean hazitako emakume baten istorio hunkigarri bezain lazgarria kontatzen zaigu. Edo abentura nobela moduan planteaturik dagoen, baina era berean ekologia edo gizakiaren inguruko gogoeta eragiten duen *Lurra- ren taupadak* (Zubia-Alfaguarra, 2001) Jon Arretxeren nobela. Baina, horien ondoan egon dira harritu gaitzuten nobelak ere, esaterako Pello Esnalen itzulera adierazi duen *Azeri-zuloa* (Elkarlanean, 2001) gazte nobela. Erreformatorio bateko istorioa kontatzen digun nobela. Edo Rufino Iraolaren lehen ekarpena haur eta gazte literaturara: *Hire magalean* (Alberdania, 2001), Labaien saria irabazi zuen nobela. Pertsonaiei egoki dagokien hizkera zaindua erabiliz Iraolak apaiz eta mojen munduan sartzen gaitu, haien sentimenduak, gogoetak, errealitatea ezagutzeko parada eskainiz gazte eta helduen arteko mugan dagoen nobela honetan.

Urteko beste ustegabe atsegina Miren Agur Meabek eman digu. Haren *Itsaslabarreko etxea* (Aizkorri, 2001) nobelak amen batean irakurtzeko elementu guztiak ditu; hizkera poetikoa zenbaitetan, gertakari misteriot-suak, protagonistekiko sinpatia... eta gainera heriotza, amodioa, bakardadea eta antzeko gaien inguruko gogoeta nobela iniziatiko honetan.

Tunelaz bestaldean (SM, 2000) Joxerra Garziak idatzi eta aurreko urteko Baporea saria irabazi zuen nobelarekin ere gozatu dugun bezala. Liburu honetan gaztetxo batek kontatzen digu bere bizitzaren lau egunetako

tartea, laguntaldearekiko harremana, lehen amodioa, urruti preso dagoen amaren beharra eta hurbil dagoen aitarekiko urruntasuna, elementu ugari nahasten dira protagonistaren bizitzan eta erabaki bat hartzera behartuko dute; azkenean tunel batean musika jotzen duen ezezagun batek lagunduko dio bizitzaren korapiloa askatzen. Egitura landua, lagunarteko hizkera, argumentu ugari erabiliz nobela interesgarri bezain gomendagarria eskaini digu Joxerra Garziak.

Eta arestian aipatu izan dugu gazte eta helduen literaturaren arteko muga irristakorra, Antton Kazabon eta Juan Luis Mugertza idazleen *Kanpai hotsak isiltzean* (Desclée de Brouwer, 2000) eta *Aruma, urrezko oihanean* (Desclée de Brouwer, 2000) liburuak ere eremu horretan koka daitezke. Lehenengo liburuko protagonista batzuk haur edo gazteak badira ere, ipuinetako gordintasunagatik, narrazioaren estiloagatik edo gaiarengatik helduen literaturan koka zitekeen. Gauza bera esan dezakegu Mugertzaren nobelari buruz, yanomanien ohianera bidaia egiten duen pert-

sona baten narrazioa kontatzen digun bidaia liburu horri buruz.

Eta beste bidaia bat, baina oraingoan Machu Picchu ezagutnera dugu gazteentzako Juan Kruz Igerabidek idatzirik azken nobelaren ardatzetako bat; *Begi argi horiek* (Aizkorri, 2000) nobelan Perura eginiko bidaia bat kontatzen da, baina horrez gain egileak erlijioei buruz edo gizakion jokabideei buruz hitz egiteko, gogoetarazteko, aukera aprobetxatzen du. Hori guztia misterioa, abentura, mestizaia eta hainbat kontu nahasten dituen gazte nobela entretenigarrian.

Eta kanporatu zen

Baina Igerabidek euskaraz argitaraturiko hainbat lan horiez gain azken urte honetan ikusi ditugu bere lan batzuk erdaraz argitaratuak. Horietako bat dugu *La ratita Miracielos* (Edebé, 2000). Baina Juan Kruzekin batera gero eta gehiago dira bere produkzioa kanporatzen ikusten duten idazleak, Patxi Zubizarreta, Karlos Linazasoro, Aitor Arana, Maria-

sun Landa, horiek guztiak ere ikusi duten beren lanen bat edo beste erdaraz, agian ez beren idazlanik onenak, edo adierazgarrienak, baina hala ere gure literatura kanporatzen ari den adibide argia.

Aldizkarien arloan ere egoera aldatzen ari den bezala, sortu berria den *Nanai* aldizkariak gain (duela ez hainbeste desagertu zen *Xirrixta* haren lekua bete dezakeena, hark bezala Milan argitaletxearen laguntzarekin), adierazgarria eta garrantzitsua izango da *Kili-Kili* aldizkariaren baitan emandako aldaketa. Izan ere, Ikastolen Elkarteak bere gain hartu du asmo hori eta ziur gaude orain baino zabalkunde handiagoa eta haurren errealitatearekin lotuago egongo den produktua kaleratuko dutela.

Bestalde literaturgintzaren inguruko ekintzek, jardunaldiek, erakusketek, hitzaldiek, ikastaroek, eta abarrek ez dute etenik izan eta aurreko urteetako ildoari jarraituz aritu dira. Arlo honetan aipagarria da Galtzagorri elkartearen lana, eta beren aldizkariarena, *Behinola*, haur eta gazte literaturaren inguruko gogoeta bultzatzeko; era berean aipatu behar dira «Liburu Gaztea» kanpaina, edo *Hik hasi* aldizkariak antolaturiko ikastaroa, edo Eusko Jaurlaritzak herrietan zehar antolaturiko autobus ibiltariaren inguruko ekitaldiak...

Egia da, beraz, haur eta gazte literatura gero eta pisu eta gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dela euskal literaturgintzan; ugari dira honen inguruan antolaturiko ekintzak, asko urtean zehar argitaratzen diren liburuak (beti ere kontuan izanik gure herriaren neurria, gure hiztun kopurua). Azken urteotan bilduma ugari sortu dira eta ia argitaletxe guztiak dute HGL bildumaren bat gutxienez, baina inguruetako literaturetan bezala, agian gogoeta piska bat gehiago egin behar-ko genuke zertan ari garen eta nora goazen jakiteko. ■